


7.800 milioi baino gehiago eta gorantz



SONIA GONZÁLEZ
IDAZLEA ETA ABAR



ANTTON OLARIAGA

7.800 milioi lagun pilatzen gara munduan gaur gaurkoz. Horrela esanda, ez berorik, ez hotzik, akaso. Baina, zenbakiak ikusita, igoera esponenzialaren tamaina igar dezakegu: 1950ean 2.600 ginen; 1987an, 5.000; 1999an, 6.000. Eta, estimazioen arabera, 2050ean 9.700 milioitara hel gintezke; 2.100ean, 11.000 milioitara.

Antropozeno garai honetan mundu eta biziarentzako arriskurik handiena garen gizakion hazkundearen ondorioak begien bistara azaltzen ari dira aspalditik. Kontsumitzea, zikintzea eta suntsitzea *leitmotiv*-tzat duen espezie honen igoerak jadanik sortu dugun hondamendia areagotu eta azkartu baino ez du egin, espezie berberaren milioika eta milioika indibiduo bizi baino, bizirauteko itzaropenari eusten diotela.

Pentsatzen dut horregatik lazten zaizkidala gorputz osoko ileak jaiotzatasu hauspotu nahi duten deiak entzuten ditudanero.

Jaiotza-tasa arazoa dagoela esaten duten gehienek ez dute egiten gazteei –eta nagusiagoei– umeak ekartzea galarazten dieten lan eta bizi baldintza negargarriak buruan, edo emakumeon jardunaldi bikoitzen zaman pentsatzen, are gutxiago lan erreproduktiboaren

kostu humanoak birplanteatzeko asmoarekin. Jaiotza-tasaren arazoa arazo zaie, arazo demografikoa den heinean. Eta ez gara engainatuko, demografia koadratzea buruhauste handia da herrialde guztientzat.

Baina demografia jaiotza tasatik harago badoa, zer dela eta, orduan, tematze hori? Halako diskurtso gehienek herrialdeak birpopulatu nahi dituzte, bai, baina bertako ume zuriz, jakina, Orbanen Hungarian bezala.

Bien bitartean, Ipar-Mendebalde zuriak munduko gero eta zonalde gehiagotan bizitzea ezinezkoa egin du. Desplazatuak ere milioika zenbatzen dira, eta horretan ere ez gaitzen engaina: inork uste al du hemendik hamar, hogeit, hogeita hamar urtera, etzidamu, alegia, ia 10.000 milioi lagun garenean, errekurtsio naturalak eskuratzeko guda, lehia geopolitikoa, sistema kontsumista-kapitalista deuseztaturik egongo direla? Nahiz eta berde koloreaz mozorroturik, triskantza gogoa eta biziarekiko destaina izango dira gidariak berdin-antzean.

Atzerantz begiratzeko deiek eta iragana mitifikatzen duten diskurtsoek ere urduritasuna sorrarazten didate. Emakumeon egoera ez da sekula hobea izan iragandako sasoieta. Urduritzen nau, era berean, zelan doan “askatasun

liberala” zabaltzen esparru gero eta gehiagotara, benetan aukeratzeko parada bagenu bezala edo gure “nahiak” bideraturik ez baleude moduan, eta zelan doazen beste balio eta borroka batzuk iruditeria kolektiboan lausotzen, hala nola independentzia, historikoki emakumeon borroka nagusienetako bat izan dena eta, datu guztiek adierazten dutenez, erdiestetik urrun gaudena.

Gorbatadun botereak demografia arazoak jaiotza tasan zentratu konpondu nahi dituenean, has gaitzen emakumeok dardarka. Azpitestua argia da: bete ezazue zuen papera. Eta has daitezela, era berean, euren lurretatik ihesi dabiltsan eta azal ilunagoa daukaten guztiak ikaran, ateak zabaltzeko asmorik ez baitago.

Demografia herrialde barruko mugetan kontrolatzea, batez ere, erronka ekonomikoa da. Demografia mundu mailan aintzat hartzea biziraupen erronka da. Planeta finitua dela ondo mamituta daukagu, baina, antza, kostatzen zaigu erreparatzea zer nolako ondorioak dauzkan horretan espeziearen etengabeko hazkundea. Izurrite honek irakatsi behar zigun koordenada zabal-tan pentsatzea eta aritzea ezinbestekoa izango zaigula hemendik aurrera. Ez dirudi hala izan denik. ●